

«Urteak betetzen ditugun heinean, gure mundua zein harrigarria den ahazten goaz»

'Niko eta amona intergalaktikoa' haur bilduma berriko lehen ipuina argitaratu du



Abel Amutxategi, haurrentzako ipuin bilduma berriaren aurkezpen-egunean.

Iraitz Urkulo

Larunbata, 10 urtarrila 2026, 00:08

Comenta

Guardar

Compartir

Abel Amutxategik (Bilbo, 1978) hamaika urteko ibilbidea egina du gaztelaniaz zein euskaraz idatzitako haur literaturan, fantasia eta

meti. Duela hilabete batzuk 'Niko eta amona' abiatu zuen Erein argitaletxearen eskutik, 'en kasua' izeneko ipuinarekin. Hartan, amona berezi bat ikertuko du Niko bilobarekin batera, abentura ugari biziko dituzte.



Capacidad todoterreno 4xe
NUEVO JEEP AVENGER 4xe

Seguir leyendo >

-Zer asmo dituzu haurrentzat idazten duzunean?

-Kalitatezko dibertimendu bat eskaintzen saiatzen naiz. Heldu askok haurrentzako liburuak beren balio instrumentalagatik estimatzen dituzte, umeari balore eta jokabide batzuk irakatsiko dizkiotelakoan. Baina helduok gehienetan plazer hutsagatik irakurtzen badugu, zergatik ez dute gauza bera egingo haurrek? Haurrak helduak tratatzen ditudan modu berean tratatzea gustatzen zait.

-Genero fantastikoa lantzen duzu. Errealismoaren mugetatik kanpo askeago sentitzen zara?

-Genero fantastikoak errealitateari buruz hitz egiteko jokaleku ezin hobea eskaintzen du. Fantasiatzko idazleonek lana, hain zuzen ere, irakurleak gure musika eta su artifizialekin distraitzeari, maila sakonago batean bere eguneroko errealitateari buruz idazten ari garela ikus ez dezan. Hala ikusita, magoaren lanaren oso antzekoa da gurea.

EL CORREO

Suscríbete y disfruta de una experiencia sin límites. Entérate de las noticias que importan, mantente al día con los últimos acontecimientos y profundiza en el análisis de la actualidad. Disfruta de acceso sin límites a nuestras secciones desde cualquier dispositivo.
[+ información](#)

-Umorea fantastikoak busti du zure obra osoa. Zertan datza?

-Umorea osagarri fantastikoekin nahasten dituen generoa da. Terry Pratchett, Douglas Adams edo Christopher Moore izan daitezke bere izenik esanguratsuenak agian, baina etxean ere badugu horren adibiderik; Mikel Pagadiren 'Bisita' eleberria, esate baterako. Mary Poppinsek pilula garratzak azukre apur batekin hobeto irensten direla zioen, eta umore fantastikoak ideia horretan ditu bere sustraiak.

«Bere adina gorabehera, abenturak bizitzeari uzten ez dion amona baten istorioa kontatu nahi izan dut»

Haur bilduma berria

- 'Niko eta amona intergalaktikoa. Lapurtutako bizkotxoaren kasua' ipuina argitaratu duzu, Ivan Landaren ilustrazio koloretsuekin.

-Liburuak bere amona agente intergalaktikoa dela deskubritzen duen ume baten abenturak kontatzen ditu. Printzipioz bederatzi eta hamabi urte bitarteko irakurleei zuzenduta dagoen istorioa da, baina badakigu hori nahiko subjektiboa dela. Ivan Landak sekulako lan ederra egin du bere irudiekin. Liburu fisikoa begientzat hain erakargarria bada, berari esker da hein handi batean.

-Isterioa bizkotxo berezi baten lapurretarekin hasten da. Horra horreko misterioa. Ez da batere kasu erraza izango,



Capacidad todoterreno 4xe
NUEVO JEEP AVENGER 4xe

[Seguir leyendo >](#)

erik espazioan zehar bidaiatu beharko dute Payat
-bizkotxoaren lapurreta argitzeko. Oso erraz

irakurtzen den istorioa da, baina sorpresaz eta joan-etorri umoretsuz beterik dago hasieratik bukaerara arte. Azken finean, istorioaren helburua irakurlea beste agente intergalaktiko bat sentiaraztea da.

-Ziurrenik aurreiritzien erruz, inor gutxi imajinatuko zuen amona Gregori Agente Intergalaktiko bat izan zitekeenik.

-Umorea ustekabetik sortzen da askotan. Eta amona bat bere bilobarekin batera espazioan zehar ikustea, tira, ez da eguneroko gauza. Baina, lehen aipatu dudanez, bai umoreak eta bai fantasiak lotura estua dute gure eguneroko errealtatearekin. Dibertimendu eta ustekabe horien guztien oinarrian, beraz, bere adina gorabehera abenturak bizitzeari uzten ez dion amona baten istorioa kontatu nahi izan dut.

-Gertaerak Niko bilobaren ikuspegitik kontatzen dira. Haur baten xalotasuna, harridura eta zirrara uztartzen dituen begirada da berea.

-Irakurlearekiko hurbiltasuna behar-beharrezkoa iruditzen zait haurrentzako literaturan, eta Nikoren ikuspegiak justu hori erraztu dit. Nikok amona Gregoriren mundu zoragarriari kanpo-begirada bat zuzenduko dio, protagonista eta irakurlearen artean elkarrizketa bat sortuz. Eta ezagutu beharreko misterio guztiak Nikoren eskutik ezagutuko ditu irakurleak hortik aurrera, lagun baten eskutik egingo lukeen bezala.

«Douglas Adams, David Walliams... umorezko haur literatura ingelesean harribitxi ugari daude gozatzeko»

Fantasiatzko munduak

-Lapurren arrastoak planeta batetik bestera daramatza amona Gregori eta Niko. Eta haietan estralurtar mordoa ezagutuko dute, zein baino zein bitxiagoa.

-Urteak betetzen ditugun heinean, gure mundua zein harrigarria den ahazten goaz. Fisika, matematika eta abar garatu ditugu mundua nolabait kudeatzeko, baina bitxia da benetan. Abentura honekin haurren harridurarako gaitasuna berreskuratzen saiatu naiz. Helduoi desertuko hondarra gozoa izan daitekeela pentsatzea zentzugabea iruditzen bazaigu ohituraren indarragatik baino ez dela uste dudalako.

-Ipuin honetan irudimena dantzan jarri duzu, mundu harrigarriak sortzeko: izaki txundigarriak, izotzezko jauregiak, behi gaseosoak, azukre-meategiak, punta-puntako gailu teknologikoak...

-Ikaragarri dibertitu naiz mundu horiek guztiak imajinatzen, baina amona Gregorik erabiltzen dituen gailu eta tresna berezi horiek dira agian nire asmaziorik kuttunenak. Nire lehen irakurketen ekarpen zuzena direla esango nuke, eta nolabaiteko komiki klasiko kutsu bat ematen diote istorioari. Tonu hori ederki doakiola uste dut, egia esan.

txikia' ekarri dit gogora, alegiazko planetetan eta 'Auto-stopista intergalaktikoaren gida' ere a tonu umoretsuagatik.



Capacidad todoterreno 4xe
NUEVO JEEP AVENGER 4xe

[Seguir leyendo >](#)

-Ez naiz 'Printze txikia' liburuaren zalea, ez pentsa, baina Douglas Adamsek beti izango du txoko bat nire irakurle bihotzean. Haurrentzako literaturari dagokionez, David Walliamsen izena ere aipatu beharko genuke nahitaez. Agian ez eragin zuzen gisa, baina bai bere estiloaren antzekotasunagatik. Nire gusturako, behintzat, umorezko haur literatura ingelesean harribitxi ugari daude gozatzeko.

-Amaieran ezin zen bizkotxoaren errezeta falta, noski.

-Errezeta horren bitartez umeak modu fisiko batean integratu nahi izan ditut istorioarekin. Bizkotxoaren prestaketa familiarekin une ederra pasatzeko aitzakia ezin hobea izango delakoan nago. Eta probatu dutenek diotenez, Payat printzearen urtebetetze-bizkotxo berezi hori benetan gozoa dago.

-Niko eta amona Gregoriren kasu gehiago irakurri ahalko ditugu laster?

-Abentura gehiago egongo dira, bai; honako hau bildumaren lehen ipuina baino ez da izan. Niko eta amona Gregoriren bigarren kasua udaberri inguruan kaleratuko da ezer larririk gertatzen ez bada... atzamarrak gurutzatuko ditut, badaezpada. Unibertsoa hain handia izanda, ez dago bere sekretu guztiak abentura bakar batean ezagutzerik!

[Temas](#) [Euskera](#) [Euskal Literatura](#)

 Comenta

 Reporta un error



Capacidad todoterreno 4xe

NUEVO JEEP AVENGER 4xe

[Seguir leyendo >](#)

